



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-18.03.05

2018ko maiatzaren 21eko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE OHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2018ko maiatzaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, JON ENRIQUE GALARZA Udalbatzarreko Presidentearen lehendakaritzapean, BATZARRE OHIKOA lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Rosario BERASATEGI AIZPEOLEA And.
- Izaskun UNZURRUNZAGA PILDAIN And.
- Beñat HACH EMBAREK IRIZAR Jna.
- Jose Maria YURRITA ARREGI Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, baina bere ezagertzea desenkusatuz:

- Olaia IZAGUIRRE CRUZ And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Josu Mirena MAYORA ORIA Jna.
- Aitor YURRITA ZABALA Jna.

Segidan Lehendakariordeak hasiera eman dio bilerari, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

LEHENENGO PUNTUA: UDALBATZARREKO AURREKO AKTEN ONARPENA.

Idazkariak akten inguruan ea baten batek zerbait adierazi nahi duen galdetu du.

Udalkideetatik inork ez du ezer adierazi.

...//...

O-18/03-01



Udal1-batzarre
O-18.03.06

Ormaiztegui Udala

...//...

Beraz, eta besterik gabe, udalbatzarrari aurkeztu zaizkion aktak onartutzat eman dira, akta hauek jarraian datozena direlarik:

- 2018.01.15eko Bilkura ohikoa (O-18-01).
- 2018.02.26ko Bilkura ezohikoa (E-18-02).

BIGARREN PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

- R-17/451
- R-18/001 – R-18/172

Idazkariak hartu du hitza eta galdetu du ia inork ezer esateko daukan.

Ez du bertaratutako zinegotzietatik inork hitzik hartu.

HIRUGARREN PUNTUA: **Osasun Etxeko obra kontratuaren lizitazioa hutsik geratu dela aitortzea.**

Alkateak azaldu du prozedura irekiaren bitartez eskaini zela Osasun Etxe izateko udal lokala egokitzeko lanen kontratua eta epea zabaldu zela eskaintzak aurkezteko, baina ez zela inor aurkeztu.

Hortaz, lizitazioa "desierto" geratu dela aitortzeko proposamena egin du.

Besterik gabe onartu da proposamena, eta lizitazioa hutsik geratu dela aitortzeko akordioa hartu da.

Beñat Hach Embarek zinegotziak galdetu du ea orain eman beharreko urratsak zeintzuk diren. Idazkariak azaldu du, Arlo Publikoko Kontratuen Lege berriari jarraiki, prozedura irekiaren bitartez lizitatu den kontratua hutsik geratuz gero, prozedura negoziatu publizitaterik gabea erabili daitekeela. Ondorioz, gutxienez hiru enpresa gonbidatu daitezkeela baina kontratuaren ezaugarriak lehengoek izan behar dutela, alegia, lehengo obra proiektua lehengo aurrekontuarekin.

Beñat zinegotziak ondoren itaundu du ea, gonbidatuetako inork interesik izango ez balu eta eskaintzarik aurkeztuko balu, zer gertatuko litzatekeen, ea beste proiektu bat egin beharko litzatekeen. Alkateak baietz erantzun dio eta horrekin bukatu da gaiaren inguruko eztabaida.

LAUGARREN PUNTUA: **ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez da erregurik ez galderarik planteatu.

...//...

O-18/03-02



Udal1-batzarre
O-18.03.07

Ormaiztegi Udala

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:25 ordu direnean, bilkura amaituzat ematen da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2018ko maiatzaren 22an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...
O-18/03-03